



REALA, ATLETISMOA ETA EMAKUMEAK

HISTORIA

Hiru garaietan desberdindu dezakegu emakumezkoen atletismo saileko historia:

1963. urtetik 1977. urteraino:

1963. urtean Bartzelonako Montjuic estadioan ospatutako Espainiako Txapelketa berezia izan zen, emakumeen partaidetza izan baitzuen. Nahiz eta 1930eko hamarkadan emakumeek lau txapelketetan parte hartu, ez zen 1963. urtera arte egoera hau guztiz finkatu eta une horretatik aurrera eta gure garaira iritsi arte, etenik gabe ospatu dira txapelketa mistoak. Beraz, 1963-ko txapelketa hartan iritsi zen Realeko lehen emakumeentzako aukera atletismo munduan. Hamaika neska izan genituen lehen denboraldia hartan eta Alicia Gomez izan zen aitzindaria, abuztuaren 3an.

Aipatutako Espainiako Txapelketa hartan, Realeko hiru atleta izan ziren Bartzelonaraino joan zirenak. Maria Lezaunek zilarrezko domina erdietsi zuen altuera jauzian (1,37 metro). Marivi Tarantinok seigarren postuan amaitu zuen luzera jauziko lehiaketa (4,15 metro) eta Cristina Patus, ordea, hamabosgarrena izan zen (3,82) proba berdinean.

Hurrengo urtean, Realeko bost atleta egon ziren Vallehermosoko estadioan lehiatzen (Madril) Espainiako Txapelketan berriz ere. Bertan, emaitza esanguratsuen Arantza Vegaren eskutik iritsi zen, 800 metrotan (2:27.5) urrezko domina lortuz. Ivonne Bertrand-ek zilarra lortu zuen pisuan (9,71) eta Eli Apalateguik brontzea eskuratu zuen 80 metro hesitan (14.3).

1965. urtean, Madrilen ospatutako Espainiako Pista Estaliko lehen txapelketan Arantza Vegak hartu zuen parte emaitza ezin hobea lortuz. 500 metrotan garaile izan zen Gipuzkoako errekorra erdietsiz (1:23.4). Hilabete batzuk beranduago, berriz ere Madrilen, Espainiako errekorra hobetu zuen 800 metrotan 2:21.4-ko markarekin, urrezko beste domina bat eskuratuz, bigarrena udako denboraldian. 1965. urtean ere, Vegak Espainiako Krosseko aurreneko txapelketa irabazi zuen, eta hurrengo urtean emaitza errepikatu zuen. 1966. urteko denboraldian, Vegak pista estaliko titulua berriz eskuratu zuen eta bigarren amaitu zuen aire zabaleko txapelketa.

Taldekako Espainiako Txapelketa 1966. urtean estreinatu zen, eta hurrengo urtean, 1967an, laugarren postua lortu zuen Realak. Egun hartan, Marivi Tarantino izan zen lehen postua lortu zuen bakarra banakako jardueran, luzera jauzian hain zuzen ere, 5,24 metroko jauzi batekin. Denboraldi horretan, bere emaitzarik onena lortu zuen banakako Espainiako Txapelketan bigarren postuan amaituz (5,14). 1968, 1969 eta 1970. urteetan brontzezko domina eskuratu zuen.

Guztira, 28 izan ziren 1963 eta 1977. urteen artean Realarekin debuta egitera iritsi ziren emakumeak. 1976an atletarik egon ez arren, 1977an Inmaculada Izaguirrek jantzi zuen Realeko kamiseta, eta hura izan zen hamarkada horretako Realeko azkeneko atleta. 1977an amaitutzat eman dezakegu beraz emakumezkoen taldeko lehen garai hau.



1989. Urtetik 1992. urteraino

Epe motz honetan zehar, zortzi emakume egon ziren taldean. Familia zein lagun gaiengatik berreskuratu zen jarduera, baina, ez zen urte askotarako izan, berriz ere kausa ekonomikoek zein kudeaketa arrazoiek taldea argaltzera eraman zutelako. 1990/1991. urteetako denboraldian, Ainhoa Palacios-ek bitan eskuratu zuen zilarrezko domina Espainiako Promesa mailan ospatutako Txapelketan. Altuera jauzian 1,66 metrotako marka lortu zuen. Garai horietarako marka aparta izan zen eta Donostiako Belodromoan eta Tolosako Berazubín egindako jauzi haiei esker, gaur egun oraindik ikus dezakegu bere izena Gipuzkoako rankinean -hamahirugarrena da pista estalian, eta hamabosgarrena udako denboraldian-. Bukatzeko, Lorea Anabitarte izan zen pasaden mendeko Realeko azkeneko atleta.

2015. urtetik aurora

Realaren atletismo eskola berri egin da. Asko dira eskolan parte hartzen ari diren neska-mutilak eta multzo horretan atleta jubencil bat dago -Lierni Urkizu-. 2015eko urtarrilaren 17an, Realeko kamiseta jantzi duen lehen emakumean bilakatu da XXI. mendean. 60 metrotan izan zen (8.67) Donostiako Belodromoan, Gipuzkoako kadete, jubencil eta junior mailan ospatutako Txapelketan.

Realeko eskola edozein neska eta mutilei irekita dago eta, beraz, taldeko emakumezkoen zerrenda handituz joango da.

1909	1914	1963	1964	1965	1967
Realaren sorrera	Lehen txapelketa Realeko atleten partaidetzarekin (gizonak)	Emakumeentza ko lehen aukera iristen da eta lehen domina Espainiako Txapelketetan Maria Lezaunen eskutik dator (altuera jauzia; zilarra)	Realeko emakumeen lehen urrezko domina Espainiako Txapelketetan (Arantza Vega; 800)	Lehen domina Espainiako pista estaliko Txapelketetan (Arantza Vega; urrea 500 metrotan)	Nesken laugarren postua Espainiako Taldeko Txapelketan. Gizonek lehen postua erdietsi zuten
1970	1977	1989	1990	1992	2015
Azkeneko domina Espainiako Txapelketetan (Marivi Tarantino luzera jauzian)	Lehen garaiko azkeneko emakumea Realan (Inmaculada Izaguirre; 1977)	Bigarren garaia hasiera ematen zaio	Espainiako Txapelketan (Promesa mailan) Ainhoa Palacios-ek bigarren postua lortzen du	Lorea Anabitarte izan zen pasa den mendeko Realeko azkeneko emakumea	Hirugarren garaia hasiera ematen zaio atleta berri batekin



Taldean egon diren emakumeen zerrenda

URTEAK	ATLETA	
1963	Alicia Gómez (03/08/1963)	Mariví Tarantino (10/08/1963)
	Mirentxu Campos (10/08/1963)	Arantza Campos (10/08/1963)
	Cristina Patús (10/08/1963)	Eli Apalategui (10/08/1963)
	María Jesús Rabadán (10/08/1963)	Marivi Sarasola (11/08/1963)
	María Lezáun (11/08/1963)	María Ángeles Martínez (11/08/1963)
	Cristina Cid (23/09/1963)	
1964	Arantza Vega (13/06/1964)	Belén Escacho (13/06/1964)
	Juana Idígoras (16/08/1964)	Ivonne Bertrand (12/09/1964)
	Eli Apalategui	Mariví Tarantino
	María Lezáun	Cristina Patús
	Arantza Campos	
1965	Marivi Tarantino	Arantza Vega
	Juana Idígoras	
1966	Margarita Martínez (17/04/1966)	Margarita Segurola (24/04/1966)
	María Ángeles Arruti (24/04/1966)	Ana Rosa Munduate (10/04/1966)
	Mariví Tarantino	Arantza Vega
	Juana Idígoras	
1967	Ana Miranda (02/04/1967)	Mari Paz Jiménez (09/04/1967)
	María Eugenia Los Santos (24/04/1967)	Merche Sueskun (25/05/1967)
	Mariví Tarantino	Arantza Vega
	Juana Idígoras	Margarita Martínez
	María Ángeles Arruti	Ana Rosa Munduate
1968	Coro Gutiérrez (27/07/1968)	María Ángeles Arruti
	Mariví Tarantino	Merche Sueskun
	Mari Paz Jiménez	Ana Miranda
1969	Mariví Tarantino	Coro Gutiérrez
	Merche Sueskun	Mari Paz Jiménez
	Ana Miranda	
1970	María Ángeles Ruiz (05/09/1970)	Mariví Tarantino



1970	Mari Paz Jiménez	
1971	Mariví Tarantino	Mari Paz Jiménez
	María Ángeles Ruiz	
1972	Yolanda Blanco (20/05/1972)	Inmaculada Izaguirre (19/09/1972)
	María Ángeles Ruiz	
1973	Mariví Tarantino	Mari Paz Jiménez
	Inmaculada Izaguirre	
1974	Inmaculada Izaguirre	
1975	María José Sarnago (26/07/1975)	Mari Paz Jiménez
	Inmaculada Izaguirre	
1976	TALDEKO ATLETARIK GAE	
1977	Inmaculada Izaguirre	
1978-1988	TALDEKO ATLETARIK GAE	
1989	Nerea Fernández (08/04/1989)	Amaya Pinter (22/04/1989)
	Ainhoa Salazar (22/04/1989)	
1990	Lorea Anabitarte (29/12/1990)	
1991	Ainhoa Palacios (13/01/1991)	Marta Urcola (13/01/1991)
	Cristina Goyarán (06/04/1991)	Idoia Aizpurua (20/04/1991)
	Lorea Anabitarte	
1992	Lorea Anabitarte	Ainhoa Palacios
	Cristina Goyarán	
1993-2014	TALDEKO ATLETARIK GAE	
2015	Lierni Urkizu (17/01/2015)	




Urte gehien Realean izandako emakumea: Marivi Tarantino (hamar denboraldi).

Realean emakume gehien egondako urtea: 1963 (11, guztira 37 izan dira).

Pistako Espainiako Txapelketetan urreak: Lau. Arantza Vegarenak izan dira guztiak (bi udako denboraldian 800 metroan -1964 y 1965-, eta beste bi pista estalian 500 metroan -1965 y 1966-).

Krosseko Espainiako Txapelketetan lortutako garaipenak: Bi. Arantza Vegaren esku bi kasuetan (1965 eta 1966).

Udako Espainiako Txapelketetan dominak: Hamar. Denak 1963 eta 1970 urteen artean, bost atleten esku.



Iturria: Real Sociedad taldearen artxiboa eta baita Gipuzkoako Atletismo Federazioarena zein Espainiakoarena ere. Garaiko protagonistekin ere hitz egin da.